


NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA
CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA

Monografia

Familien parte-hartzea
Nafarroako hezkuntza
sisteman (II. Zatia)

Faktore sozioekonomiko
eta kulturalen eragina



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

Titulua

Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman (II. Zatia). Faktore sozioekonomiko eta kulturalen eragina

Egileak

Charo Repáraz Abaitua, Ángel Sanz Moreno, Pedro González Felipe

Lan hau Aitortu – Partekatu Berdin 4.0 Nazioarteko Baimen baten mende dago.
Iturria aipatzeko: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Eskola Kontseilua

**Azaleko marrazkia**

Ángel López Ochoa

Maketazioa

José Joaquín Lizaur

Inprimaketa

Rodona Industria Gráfica S.L.

LG: NA 812-2016

ISBN: 978-84-235-3483-8

Sustapena eta banaketa

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza

Navas de Tolosa k. 21

31001 IRUÑA

Telefonoa: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Eskerrak

Nafarroako Eskola Kontseiluak aurkezten du "Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman" monografiaren bigarren zatia. Egileak Charo Repáraz Abaitua, Ángel Sanz Moreno eta Pedro González Felipe dira.

Familien eta hezkuntza sistemaren arteko erlazioaren gaia, ikerketarako eduki klasiko agorrezina da, biak –familia eta eskola– anitzak eta konplexuak direlako eta etengabeko aldaketan daudelako. Hau dela eta, testuinguru eta momentu historiko zehatzetan egindako analisiak bereziak dira beti.

Duela urte batzuk, adibidez, harrituko gintuzten ezaugarrien artean egongo ziren familien tamainaren txikiagotzea, haurren hiperprotagonismoa, gurasoen egunerokoan sortutako zalantzak, zorientasunaren eta gozamenaren gehiegizko garrantzia, pantailekiko menpekotasuna, bakardadea haurtzaroan, eskoletan familien protagonismoa handitzeko eskaera edo haurrengan jarritako espektatiba altuak. Eta, era berean, aipatzen da komunitate parte-hartzaileagoen kide izateko nahia, irakasleen higadura sinbolikoa eta erreala, banakako arrakastaren eta kooperazioaren arteko gatazka, eskolaren funtzio sozializazioa, ez bakarrik haurrentzat baita gurasoentzat ere. Eta beste hainbat.

Zalantzarik gabe, urte batzuk barru ezaugarri hauek bestelakoak izango dira. Lan honek arazo hauek testuinguru zehatz batean aztertzen ditu: Nafarroan eta gaur egun. Hausnarketa ikerketa esparru zabal honen atal batean ardaztea proposatzen du.

2012. urtean, Nafarroako Eskola Kontseiluak familien eta eskolen arteko harremana proposatu zuen aztergai. Familien inplikazioa ikastetxean, zer neurritan egiten duten bat hezkuntza proiektuarekin edo ikastetxeko jardueretan parte-hartzea faktoreen eta seme-alaben etekin akademikoaren arteko harremana aztertzea zen helburua.

Aldi berean, Estatuko Eskola Kontseilu Autonomikoen Parte-hartze Batzarran, estatuko erkidegoetako Eskola Kontseiluetako lehendakaritzak osatutakoa, familiek hezkuntzan duten parte-hartzeari buruzko eztabaida egin zen ikuspuntu osagarri batetik.

Bi jarduera hauen aldiberekotasunak eta helburuen kointzidentziak, proposatutako eztabaidaren gaia zabaltzeko aukera mahaigaineratu zuen, familiek beren seme-alabekin eta ikastetxeekin duten inplikazioa eta konpromiso mailak, ikasleen emaitza akademiakoetan eta eskola giroan duen eragina hausnartzuz.

Prozesuaren bukaerarekin bat, Nafarroaren errealitateari buruzko zenbait galdera erantzuten dituen ikerlana argitaratu zen, eta hona hemen ikerlanaren bigarren atala.

Abiapuntua, zenbait faktorek seme-alaben arrakastan duten eragin zuzena da. Hainbat ikerlanetan egiaztatutakoaren arabera, gurasoek seme-alaben hezkuntza etorkizunarekiko duten itxaropena, jarrera positiboa eta hezkuntzarekin zerikusia duten gaietan interesa jartzea, esate baterako, seme-alaben arrakastan eragin zuzena dute. Baita ere, faktore hauek aldagai sozioekonomikoak baino garrantzi handiagoa izan dezaketela.

Horretarako, egileek ondoko galderatik abiatu dira: *posible litzateke gurasoen inplikazioa neurtzeko adierazle bat eraikitzea Nafarroako familien laginari egindako galdetegian bildu den informazioarekin?*

Ikerlan honen oinarri izan diren galdetegiaren erantzunetatik, laginaren subjektu bakoitzari *Gurasoen Hezuntza Inplikazioaren indizea* (GHI) egokitu zaio. Ondoren, GHIren garapena aztertu da hezkuntza etapetan zehar baita *Indize Sozioekonomiko eta Kulturalarekin* (ISEK) duen erlazioa ere.

Familiaren ezaugarri sozioekonomikoen eta inplikazioaren arteko lotura aztertzea dute helburu. Familiaren testuinguruan ematen den jarrera positiboaren garrantzia baieztatzen bada, parte-hartzeko modu aktibo hori hezkuntza sistema hobetzeko lerro nagusi izan beharko luke.

Azkenik, GHIren eta ikasleen errendimendu akademikoaren arteko harremana aztertzen da, familiaren inplikazioak ikasleen maila akademikoan eraginik baduen egiaztatzeko.

Egileei eskerrak eman, maila akademiko eta sozialean garrantzi nabarmena duen gai honetan ikerlan honekin egindako ekarpenengatik, Nafarroako Eskola Kontseiluak bi zaititan aurkeztutako monografiak jasotzen duena. Lan hau, familien testuinguruen osagai ekonomiko, sozial, kultural eta sinbolikoen eta akreditazio akademikoaren eta bere ezaugarrien arteko loturen konplexutasuna eta dinamismoa erakusten duten hainbat ikerlanen zerrendara batzen da.

Aitor Etxarte Berezibar

Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

Aurkibidea

- 11 Sarrera**
- 15 Indize Sozioekonomiko eta Kulturalaren (ISEK) deskribapena**
- 17 ISEKen eta ikerketako faktoreen arteko harremana**
 - 17 Batezbestekoen konparaketa orokorra
 - 21 ISEK mailen eta hezkuntza etapen arteko konparaketa, faktore bakoitzeko
 - 27 ISEK mailen eta sare publiko eta itunduen arteko konparaketa, faktore bakoitzeko
 - 31 ISEK ez aparteko itemak
- 33 ISEK eta eskola errendimendua**
 - 33 ISEK eta eskola errendimendua Lehen Hezkuntzan
 - 34 ISEK eta eskola errendimendua Bigarren Hezkuntzan
- 37 ISEK eta familien parte-hartzea Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan**
 - 37 Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan parte-hartzea, Lehen Hezkuntzan
 - 39 Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan parte-hartzea, Bigarren Hezkuntzan
- 41 Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren Indizearen (GHI) deskribapena**
- 43 GHI eta beste aldagaiekin duen harremana**
 - 43 GHIren eta ISEK mailen arteko harremana
 - 44 GHIren eta hezkuntza sareen arteko konparaketa
- 45 GHI eta eskola errendimendua**
- 47 Ondorioak**
- 50 Bibliografia**
- 53 Eranskina**
 - Familientzako galdeketa: Familien parte-hartzea ikastetxeetan

Sarrera

Joan den 2016an, "Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman" izeneko monografia argitaratu zuen Nafarroako Eskola Kontseiluak. Dokumentuak analisi bat egiten du Foru Komunitateko zenbait eremu, hezkuntza etapa, sare eta hizkuntza ereduak 1.500 familia baino gehiago oinarri dituen ikerketa baten emaitzei buruz.

Jakitun izanik familiaren eta eskolaren arteko elkarlan eraginkorrak, edo «guraso inplikazioa» deituriko ikuspegiak, hezkuntza praktikak eta emaitzak hobetzen ahal dituela, "eskola etekinetan eragiten duten familia-ezaugarri eta -jokaeren analisia sustatzea zuen asmoa ikerketak; hala nola haiengan eragin dezaketen faktoreetan, eskola eta familia arteko elkarlan testuinguru hobea finkatzen laguntzeko"¹.

Horretarako, tresna berri bat egokitu zen, Estatuko Eskola Kontseilu Autonomikoen Parte-hartze Batzarrak (APB)² sustatu zuen ikerketan erabilitako galdetegiak oinarri hartuta, eta bost faktore bereizi ziren: familien komunikazioa ikastetxearekin, familien laguntza ikastetxeak antolatutako jardueretan, familien konpromisoa ikastetxearen hezkuntza proiektuan eta hezkuntza inplikazioa, ikastetxearekiko poztasuna eta pertenezia zentzua eta familien itxaropenak eta inplikazioa seme-alaben arrakastan. Bestalde, galdetegiak honako hauei buruzko informazioa jasotzen zuen: familien ezaugarriak, seme-alaben errendimendua eta Guraso Elkarteetako nahiz Eskola Kontseiluetako parte-hartzea.

Bildutako datuetatik abiatuta, honako hiru galdera hauei erantzun nahi genien:

- a. Zein neurritan parte hartzen dute gurasoek beren seme-alaben eskolan? Zertan datza parte-hartze hori?

1 P. GONZÁLEZ, C. REPÁRAZ eta A. SANZ; (2016) "Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman". 8. Iruña. Nafarroako Eskola Kontseilua.

2 CONSEJO ESCOLAR DEL ESTADO (2014) "La participación de las familias en la educación escolar". Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

- b. Ba al dago loturarik familiaren parte-hartzearen eta seme-alaben errendimendu akademikoaren artean? Parte hartzeko zer modu daude lotuta ikasleen errendimendu handiagoarekin?
- c. Hezkuntza mailaren, hizkuntza ereduaren, hezkuntza etaparen eta eskualde geografikoaren arabera aldatzen al dira parte hartzeko moduak?

Nafarroako familien inplikazio estiloari buruzko ondorio oso esanguratsuak atera genituen honako hauek kontuan hartuta egindako konparazio-analisiari esker: hezkuntza etapak, Nafarroako bi hezkuntza sareak, gure hezkuntza sisteman dauden hizkuntza ereduak eta Foru Komunitateko eremu geografikoak.

Hala, honako adierazle positibo hauek laguntzen ahal dute Nafarroako hezkuntza egoera onean egoten: familiek ikastetxeetako hezkuntza proiektuekiko duten iritzi ona, tutoreen bitartez lortzen den komunikazio naturala, ikastetxeekiko adierazten duten poztasuna eta, azkenik, seme-alaben hezkuntza etorkizunarekiko duten itxaropena.

Norbanakoaren mailan ere, aipatutako faktore horietan puntuazio handiagoa lortzen duten familien seme-alabek errendimendu akademiko hobeaz izaten dute. Baina hezkuntza etapen arteko orokortutako aldeak ere nabarmendu egin behar dira. Bigarren Hezkuntzako puntuazioak baxuagoak dira Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak baino, eta familiek Guraso Elkarteetako jardueretan eta Eskola Kontseiluetarako hauteskundeetan duten parte-hartzea ere txikiagoa da.³

Faktore sozioekonomiko eta kulturalen eragina

ISEK Indize Sozioekonomiko eta Kulturala estatuko eta nazioarteko ebaluazioetarako erabiltzen da, ikasleen familien testuinguru sozialari eta baldintzei buruz askotariko informazioa adierazteko; adibidez, gurasoen lanbidea eta hezkuntza maila edota etxeko baliabideak.

Baldintza sozioekonomikoek emaitza akademikoetan duten eraginari buruzko analisiak eztabaida ezinak dira. Lortutako emaitzen arteko desberdintasuna, neurri handi batean, ISEK osatzen duten faktoreen (gurasoen hezkuntza eta lanbide profesional maila⁴, etxeko liburu-kopurua, Informazio eta Komunikabideen Teknologien eskuragarritasuna, eta abar) arteko desberdintasunengatik sortzen ahal dira. Beraz, hezkuntza sistemetan parekide-tasuna lortzeko, ISEKek eskolako emaitzetan duen eragina murrizten egin beharko dira ahaleginak. Hezkuntza sistema bat parekideagoa izanen da, baldin eta ikasleen ISEK-en arteko aldeak ahalik eragin txikiena badute haien hezkuntza errendimenduan; hala, aukera berdintasuna bermatuko zaie ikasle guztiei.

.....

3 P. GONZÁLEZ, C. REPÁRAZ eta A. SANZ (2016). “Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman”. Ondorioak; 49-50. Iruña: Nafarroako Eskola Kontseilua.

4 DEPARTAMENTO DE EDUCACION (2017). “Resultados de PISA 2015 en Navarra”; 53. Iruña: Nafarroako Gobernua.

Gurasoen hezkuntza maila eta ikasleen emaitzen batezbestekoa

Eskumena	Baxua		Baxu-ertaina		Ertain-altua		Altua	
	Batezbesteko K.	Akats t.	Batezbesteko K.	Akats t.	Batezbesteko K.	Akats t.	Batezbesteko K.	Akats t.
ELGAren batezbestekoa	415,96	2,157	439,25	1,295	481,93	0,526	511,79	0,509
EB osotara	430,87	2,508	457,31	1,584	485,77	0,769	514,83	0,937
Espainia	442,98	4,804	467,98	3,865	491,12	2,882	509,74	2,449
Nafarroa	464,79	7,527	486,40	6,732	499,08	5,956	524,12	4,648

Nafarroako Eskola Kontseiluren ikerketarako informazioa biltzeko galdetegiari atal bat gehitu zaio, VI. puntu gisa, "Familiaren testuinguruari buruzko informazioa" izenpean, estatuko eta nazioarteko ebaluazioetan gehitzen diren antzekoa. Horri esker, ikasle bakoitzaren ISEK kalkulatzeko beharrezko datuak izan ditugu, familien testuinguruak kontuan hartuta.

Informazio hori eskura izateak lan ildo oso interesgarria irekitzen du, eta ikerketaren bigarren zatian erantzuten ahal diren galdera berri batzuk sortzen zaizkigu:

1. Nola eragiten du familien maila sozioekonomikoak seme-alaben ikastetxearekin duten harremanean? Familiaren ISEK maila kontuan hartuta, ba al dago alderik familien parte-hartzeari buruzko ikerketa egiteko zehaztutako faktoreen artean, hala nola komunikazioaren, lankidetzaren, inplikazioaren eta itxaropenen artean?
2. Nazioarteko ebaluazioetan gertatzen den bezala, eragiten al du ISEKek Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren maila desberdinetako ikasleen errendimendu akademikoan?
3. Familiek Eskola Kontseiluetan parte hartuz hezkuntzaren kudeaketan duten inplikazioari dagokionez, ba al da loturarik familien maila sozioekonomikoaren eta Eskola Kontseiluetarako hauteskundeetako parte-hartzearen edo kontseilu horien parte izateko eta konpromisoak hartzeko agertzen duten prestutasunaren artean?

Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren Indizea (GHI)

Ikerketa horren⁵ lehen zatian aipatzen da familien parte-hartzea kontzeptua nola aldatu den azken hamarkadetan: lehen, eskola sistemako egitura formaletan parte hartzen zuten, eskola parte-hartze demokratikoaren lehen maila zela ulertzen zutelako (Egido,

5 P. GONZÁLEZ, C. REPÁRAZ eta A. SANZ (2016). "Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman". Sarrera; 5-11. Irufia: Nafarroako Eskola Kontseilua.

2014)⁶; orain, familiaren eta eskolaren arteko harremanean, rol desberdina eskatzen da, beharrezkotzat jotzen baita eskolako prozesuak eta emaitzak hobetzeko.

Beraz, hipotesi horretatik abiatuta, familiaren eta eskolaren arteko elkarlana hobetzea funtsezko helburua bihurtu da hezkuntza sistemetan. Azken urteotan, familia/eskola harremanaren analisiak egiterakoan, guraso inplikazioa kontzeptuaren ikuspegia nagusitzen ari da, eta erreferentziatzat hartu da familiek hezkuntza sisteman duten parte-hartzeari buruzko analisiak egitean (Reparaz eta Naval, 2014)⁷.

Lan horren bigarren zatia ideia sinple batetik abiatu da: posible litzateke gurasoen inplikazioa neurtzeko adierazle bat eraikitzea Nafarroako familien laginari egindako galde-
tegian bildu den informazioarekin?

Helburu hori markatuta, kontuan hartu behar da ikerketa enpiriko askotan ondorioztatu dela faktore batzuek (adibidez, gurasoek seme-alaben ikasketekiko duten itxaropena, eskola jardueretarako duten denbora eta jarraipena egiteko aukera, eta seme-alabekin gaiak konpartitu eta eskolako kontuez hitz egiteko aukera) zerikusi zuzenagoa dutela ikasleen eskolako arrakastarekin baldintza sozioekonomikoekin baino (Consejo Escolar del Estado, 2014)⁸, eta, hala, galdetegian gai horiei buruz modu zuzenean galdetzen duten itemak aukeratu dira, eta lagineko subjektu bakoitzarentzat (fami-
liak) Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren indize bat kalkulatzeko lortu da, lan horri dagokion atalean ongi azaltzen den bezala.

Kalkulu horretatik abiatuta egiten da GHIren eboluzioaren analisisa hezkuntza etapetan zehar, baita ikastetxe sareen arteko aldean ikerketa ere. Hirugarrenik, bi indizeen arteko erlazioa analizatzen da, hau da, ikerketa honetako oinarritzko adierazleak diren ISEKen eta GHIren artekoa. Komeni da jakitea ea familiek seme-alaben eskola hezkuntzan duten inplikazioak zerikusia duen beren egoera sozioekonomikoarekin; izan ere, parte hartzeko modu hori hezkuntza kalitatearen hobekuntzan gehien eragiten duen faktoreetako bat bada, familia guztien inplikazioa lortzeko izan behar luke hezkuntza sistemetako lehen mailako lerro estrategikoetako bat.

Azkenik, ISEKekin egin den bezala, ikerketak GHIren eta ikasleen errendimendu akademikoaren arteko harremana aztertzen du, familia inplikazioan aukeratutako elementuek Nafarroako ikasleen eskolako jardueretan eraginik baduten egiaztatzeko.

6 EGINO, I (2014). "Marcos normativos de la participación de las familias en los sistemas educativos europeos. Una visión comparada". Estatuko Eskola Kontseilua, La participación de las familias en la educación escolar; 35.-56. or. Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

7 REPÁRAZ, R. eta C. NAVAL (2014). "Bases conceptuales de la participación de las familias". Consejo Escolar del Estado; La participación de las familias en la educación escolar; 21.-34. or. Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte

8 CONSEJO ESCOLAR DEL ESTADO (2014). "La participación de las familias en la educación escolar". 199. or. Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

Indize Sozioekonomiko eta Kulturalaren (ISEK) deskribapena

ISEK kalkulatzeko, bai estatuan bai nazioartean hura definitzeko erabiltzen diren adierazleak baliatu dira. Adierazleak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren ebaluazio diagnostikoetan edota PISA gisako nazioarteko ebaluazioetan ageri dira.

Zehazki, honako aldagai hauek hartu dira kontuan:

- Aitaren edo amaren ikasketa maila (altuena hartzen da kontuan).
- Aitaren edo amaren lanbidea (maila altuena hartzen da kontuan).
- Etxean duten liburu kopurua.
- Etxean dituzten baliabideak (baliabide askoko zerrendetan, aldakorrenak direnak hartzen dira kontuan). Hauek izan ziren lagin honetan hautatutako baliabideak: ordenagailu bat, etxeko lanak egin ditzaten; literatura klasikoa eta etxeko lanetan laguntzeko liburu lagungarriak; erreferentziako liburu teknikoak, eta ordenagailu kopurua.

Lau aldagaiak neurtu egin dira, batu, eta 0 eta 20 arteko balioak lortu.

Laginaren guztizkoan, ISEK hiru sailkapen-kategoriatan (baxua, ertaina, altua) banatzeko, egiaztagarritasun handiena duten taldeak hartu dira. %27 maila altukoak eta baxukoak dira, eta %46 maila ertainekoak.


Hori horrela izanik, Nafarroako laginak erreferentziazat hartuta, honela banatu da aldagaia, 20 puntutatik:

ISEK aldagaiaren puntuazio mailak

ISEK kategoriak	Puntuazio maila
Baxua	2 - 11
Ertaina	12 - 16
Altua	17 - 20

Hezkuntza etapa bakoitzeko, ISEK oinarri hartuta banatu den lagina honelakoa da (hiru etapen artean ez dago alde esanguratsurik):


Familien banaketa ISEK mailaren arabera




Hiru etapen ISEKen batez besteko balioak elkarren artean alderatuta, ohartuko gara ez dela alde esanguratsurik ($F=,60$ eta $p=,544$).

ISEKen batez besteko balioak, hezkuntza etapa bakoitzean

Ikastetxe mota kontuan hartuta, desberdintasun esanguratsu bat aurkituko dugu ikastetxe publikoetako eta ikastetxe itunduetako ISEKen batezbestekoen artean ($t=-8,115$ eta $p=,000$).



Banaketa ISEKen arabera: ikastetxe publikoak eta itunduak



Laginean ISEK deskribatu ondoren, ikastetxeetako familien parte-hartzeari buruzko aldagai nagusiak analizatuko ditugu.

ISEK eta ikerketako faktoreen arteko harremana

Atal honetan deskribatuko da neurtzeko tresnaren faktore bakoitzak zer-nolako jokaera duen hezkuntza zentroetan familiek duten parte hartzean, familien ISEK kontuan hartuta. Hasteko, aztertuko dugu Nafarroako laginean faktoreek zer-nolako jokaera duten; eta bigarrenik eta hirugarrenik, familien ISEK mailaren arabera aztertu ditugu faktoreak, hezkuntza etapa bakoitzean eta ikastetxe mota bakoitzean.

Batezbestekoen konparaketa orokorra

Galdetegia osatzen duten bost faktoreetako bakoitzari egin zaio batezbestekoen konparaketa-analisia.


Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa eta ISEK

Galdetegiaren lehen hamaika itemetatik abiatuta, familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa faktorea sortu da. Faktore horri forma emateko, honako alderdi hauek hartu dira kontuan, nagusiki:

- Gurasoak banakako tutoretza eta talde tutoretza saioetara joaten diren ala ez.
- Gurasoak bestelako bileretara joaten diren ala ez, hala nola beste irakasleekin, zuzendaritza taldeko kideekin, orientatzailearekin, etab. egiten direnetara.
- Tutorearekin komunikazio naturala duten ala ez.
- Tutorearekin gai jakinak erraztasunez hitz egiten dituzten ala ez.

Familien batez besteko puntuazioa 2,665 da, batetik laurako eskalan, eta desbideratze estandarra 0,39koa da. Indizea bereizten bada, eta familien ISEK indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila kontuan hartzen bada, grafiko honetan jasotzen diren emaitzak lortuko ditugu:

Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa, familien ISEK mailaren arabera



Ikusten den bezala, gauzak aldatu egiten dira familien gizarte eta hezkuntza maila baxua, ertaina edo altua bada ($F=5,506$). Familiek ikastetxearekin duten komunikazio maila hobetu egin ohi da ISEK maila altuagoa bada.

Desberdintasun horiek estatistikoki esanguratsuak dira maila baxuaren eta ertainaren artean ($p=,027$) eta maila baxuaren eta altuaren artean ($p=,009$). Beraz, maila sozioekonomiko ertaineko eta altuko familiak hobeki komunikatzen dira ikastetxearekin, maila baxukoak baino.


Familien laguntza ikastetxeak antolatuko jardueratan eta ISEK

Lau item oinarri hartuta, familien eta ikastetxearen arteko elkarlana faktorea sortu da. Gaiari forma emateko, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Gurasoek parte hartzen duten ala ez ikastetxeak antolatutako prestakuntza jardueretan.
- Gurasoek parte hartzen duten ala ez lan batzordeetan.
- Gurasoek parte hartzen duten ala ez eskolaz kanpoko eta gelako jardueretan.

Batez besteko puntuazioa, batetik laurako eskalan, 2,08 da eta desbideratze estandarra 0,66koa da. Familien maila sozioekonomikoa kontuan hartuz gero, honako emaitza hauek lortu dira:

Familien eta ikastetxearen arteko lankidetzeta, familien ISEK mailaren arabera




Ikastetxean parte-hartzeari eta laguntzeari dagokionez, aldea hautematen da familien gizarte eta hezkuntza mailaren arabera. Alde horiek estatistikoki esanguratsuak dira ISEK maila baxuaren eta altuaren artean ($F=5,052$ eta $p=,008$). Maila sozioekonomiko altuko familiek gehiago laguntzen dute ikastetxean maila baxukoek baino, eta ez dago alde esanguratsurik maila baxuaren eta ertainaren artean eta maila ertainaren eta altuaren artean.

Familien konpromisoa ikastetxearen hezkuntza proiektuan eta hezkuntza inplikazioa, eta ISEK

Galdetegiaren hamaika item oinarri hartuta, familien konpromisoa ikastetxean faktorea sortu da. Honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Familiek zer neurritan egiten duten bat ikastetxearen hezkuntza helburuekin.
- Beren seme-alabarentzat hartzen diren erabakiak sostengatzen eta errespetatzen dituzten ala ez.
- Seme-alabekin naturaltasunez hitz egiten duten ala ez.
- Eskolaz kanpoko eta osagarriak diren jarduerak babesten dituzten ala ez.
- Beren seme-alabaren autonomia eta ardura ikasketetan sustatzen dituzten ala ez.
- Ordenagailuen eta mugikorren erabilera arduratsua sustatzen duten ala ez.
- Ikasketa giroa sustatzen duten etxean ala ez.

Batez besteko puntuazioa, batetik laurako eskalan, 3,56 da eta desbideratze estandarra 0,3koa da. Familien maila sozioekonomikoaren arabera emaitzak bereizita, grafikoan agertzen diren emaitzak ikusten ditugu.




Beste behin ere, argi ikusten da badaudela aldeak ISEK mailen arabera. Desberdintasun horiek estatistikoki esanguratsuak dira ($F=31,391$ eta $p=,000$), bai maila baxuaren eta ertainaren ($p=,000$) nahiz altuaren ($p=,000$) artean, bai ertainaren eta altuaren ($p=,018$) artean. Ondorioz, esaten ahal da badaudela desberdintasunak ikastetxearekiko konpromisoak hartzean familien maila sozioekonomikoaren arabera. Zenbat eta maila altuagoa, handiagoa da konpromisoa eta inplikazioa ikastetxeko hezkuntza proiektuan.

Ikastetxearekiko poztasuna eta bertako pertenezia zentzua, eta ISEK

Familiak ikastetxearekin pozik dauden eta ikastetxeko kide sentitzen diren faktorea eratzeko, familiekin erabili den galdetegiko sei item erabili dira. Item horiek honako alderdi hauek lantzen dituzte:

- Seme-alabak jasotzen duten heziketarekin pozik dauden ala ez.
- Tutorearekin pozik dauden ala ez.
- Ikastetxeko giroarekin pozik dauden ala ez.
- Ikastetxera joaten diren beste familiekin pozik dauden ala ez.
- Ikastetxeko kide sentitzen diren ala ez.

Batetik laurako eskalan, laginaren guztizkoan ateratako batezbestekoa 3,066 puntukoa da, eta desbideratze estandarra, 0,59koa. Komeni da, beraz, mahaigaineratzea ea familiak batezbesteko horretatik urrundu egiten diren maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera. Beheko grafikoan ikusten ahal da:



Beste behin ere, esaten ahal da puntuazioak gora egiten duela familien maila sozioekonomikoa eta kulturala handitu ahala.

Desberdintasun horiek estatistikoki esanguratsuak dira ($F=7,357$ eta $p=,001$) ISEK maila baxuaren eta altuaren artean ($p=,001$), baita maila ertainaren eta altuaren artean ere ($p=,010$). Beraz, maila soziokultural altuko familiekin ikastetxearekiko poztasun handiagoa adierazten dute maila ertaineko eta baxuko familiekin baino.


Familiaren itzaropenak eta inplikazioa seme-alaben arrakasta akademikoan, eta ISEK

Faktorea galdetegiko bederatzi itemetan oinarrituta eratu da. Itemetan landutako alderdiek honako hauei egiten diete erreferentzia:

- Gurasoen seme-alabengandik espero izandako maila altuena.
- Familiaren inplikazioa, maila horretara ailega daitezela: helmuga zehatz eta errealistak, egiten den esfortzuen balorazioa, ikastearren garrantzia, lan eta iraunkortasun ohiturak.

Batetik laurako eskalan, Nafarroako batezbestekoa 3,48 puntukoa da, eta desbideratze estandarra, 0,45koa. Grafiko honetan, batezbestekoak daude jasota, familien ISEK mailak kontuan hartuta:

Seme-alabekiko itxaropenak, familien ISEK mailaren arabera



Itxaropenekin lotutako indizean, puntuazioak gora egiten du familien maila sozioekonomikoa eta kulturala handitu ahala.

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($F=12,58$ eta $p=,000$) maila baxuko eta ertaineko familien artean ($p=,003$) eta maila baxuko eta altukoaren artean ($p=,000$). Baina maila ertaineko eta altukoaren arteko aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

ISEK mailen eta hezkuntza etapen arteko konparaketa, faktore bakoitzeko


Jarraian, aurrez ikertutako faktoreen azterketa xehatu bat aurkezten da, hezkuntza etapa bakoitzeko:

- Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa, eta ISEK.
- Familien laguntza ikastetxeak antolatuko jardueratan, eta ISEK.
- Familien konpromisoa ikastetxearen hezkuntza proiektuan eta hezkuntza inplikazioa, eta ISEK.
- Ikastetxearekin poztasuna eta bertako pertenezia zentzua, eta ISEK.
- Familien itxaropenak eta inplikazioa seme-alaben arrakasta akademikoan, eta ISEK.

Familien Indize Sozioekonomiko eta Kulturalak (ISEK) Haur Hezkuntzan duen eraginaren analisia

Beheko grafiko honetan, aztertutako bost faktoreetako bakoitzaren ISEK mailen batezbestekoak aurkezten dira:

Aزتutako aldagaien arteko konparaketa: Haur Hezkuntza




Badira zenbait alde komunikazio, elkarlan, poztasun eta itxaropen faktoreen artean, baina alde horiek ez dira estatistikoki esanguratsuak. Baina, hezkuntza proiektuarekiko familiek duten konpromisoari dagokion indizean, badaude estatistikoki esanguratsuak diren aldeak ($F=5,036$ eta $p=,007$) maila baxuko eta ertaineko familien artean ($p=,018$) eta maila baxuko eta altuko familien artean ($p=,026$). Dena den, hiru kasuetan, batez-bestekoak altuak dira (batetik laurako eskalan).

Familien Indize Sozioekonomiko eta Kulturalak (ISEK) Lehen Hezkuntzan duen eraginaren analisia

Lehen Hezkuntzan, familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa faktorean, maila ertaineko eta altuko familien batez besteko puntuazioa altuagoa da, maila baxuko familia bano. Alde horiek estatistikoki esanguratsuak dira ($F=5,093$, $p=,015$ eta $p=,032$, hurrenez hurren). Egoera hori errepikatu egiten da familien konpromisoa ikastetxearen hezkuntza proiektuan ($F=34,113$, $p=,000$ eta $p=,000$, hurrenez hurren) eta familien itxaropenak seme-alaben arrakasta akademikoan ($F=10,912$, $p=,001$ eta $p=,000$ hurrenez hurren) faktoreetan.

Ikastetxearekiko elkarlana eta seme-alabek jasotzen duten hezkuntzarekiko poztasuna faktoreetan aurkitutako aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




Familien Indize Sozioekonomiko eta Kulturalak (ISEK) Bigarren Hezkuntzan duen eraginaren analisia

Grafiko honetan, Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion bost faktoreetako bakoitzaren ISEK mailen batezbestekoak ikusten dira:

Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa faktorean, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak, baina beste lau faktoreetan, bai. Hala, ikastetxearekiko elkarlana faktorean, desberdintasunak esanguratsuak dira maila baxuko eta maila altuko familien artean ($F=4,048$ eta $p=,021$), eta gauza bera gertatzen da familien konpromisoa ikastetxearen hezkuntza proiektuan faktorearekin ($F=3,857$ eta $p=,025$) eta itxaropenak seme-alaben

arrakasta akademikoan faktorearekin ($F=6,469$ eta $p=,002$) ere. Ikastetxearekin asetasuna faktoreari dagokionez, aldeak estatistikoki esanguratsuak dira maila altuko ($F=3,80$ eta $p=,023$) eta baxuko nahiz ertaineko familien artean.




Atal honen laburpen gisa, hezkuntza etapen arabera aztertutako faktoreetako ISEK mailen konparaketa-analisi bat jaso da taula honetan:

ISEK mailen arteko alde esanguratsuak

	Komunikazioa	Elkarlana	Konpromisioa	Poztasuna	Itxaropenak
Haur Hezkuntza	EZ	EZ	BAI	EZ	EZ
Lehen Hezkuntza	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI
Bigarren Hezkuntza	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI

Ikastetxeko hezkuntza proiektuarekiko konpromisioa faktoreari dagokionez, alde esanguratsuak nabari dira hiru etapetan maila sozioekonomiko eta kultural desberdinetako familien artean.


Ikastetxearekiko konpromisoa eta ISEK, hezkuntza etaparen arabera



Hiru etapetan, maila sozioekonomiko baxuko familiek puntuazio baxuagoa dute maila ertain eta altuko familiek baino. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, aldeak ISEK maila baxuaren eta ISEK maila ertain eta altuaren artean daude; Bigarren Hezkuntzan, berriz, aldeak maila baxukoaren eta maila altukoaren artekoak dira.


Seme-alabek ikasketa maila on bat eskuratzeko itxaropenak faktorean, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, badaude aldeak familien maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera, baina ez Haur Hezkuntzan.

Seme-alabekiko itxaropenak eta ISEK, hezkuntza etaparen arabera



Haur Hezkuntzako etapan, maila baxuko, ertaineko eta altuko familiek antzeko puntuazioa dute, baina ez Lehen Hezkuntzan; izan ere, azken horretan, maila baxuko familiek puntuazio baxuagoa dute maila ertaineko eta altuko familiek baino. Azkenik, Bigarren Hezkuntzan, maila baxuko eta altuko familien artean soilik daude aldeak.

Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa faktorean, Lehen Hezkuntzan soilik daude ISEK maila desberdineko familien arteko alde esanguratsuak.




Lehen Hezkuntzako aldeak ISEK maila baxuko familien eta ISEK maila ertaineko eta altuko familien artekoak dira. Grafikoan ikusten denez, maila baxuko familiek joera dute batezbesteko baxuagoak lortzeko hezkuntza etapetan aurrera joan ahala; hau da, Bigarren Hezkuntzako familiak gutxiago komunikatzen dira ikastetxearekin, seme-alaben eskola mailak gora egin ahala.


Azkenik, elkarlana eta ikastetxearekiko poztasuna faktoreak dira hiru etapetan antzeko joera duten faktoreak. Hala, Bigarren Hezkuntzan soilik ikusten dira desberdintasun esanguratsuak maila baxuko familien eta maila altuko familien artean.

Elkarlanari dagokionez, txikiagoa da Bigarren Hezkuntzan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino.

Familien eta ikastetxearen arteko elkarlana eta ISEK, hezkuntza-etaparen arabera



Ikastetxearekiko poztasuna eta ISEK, hezkuntza-etaparen arabera



Ikastetxearekiko poztasuna faktoreari dagokionez, Bigarren Hezkuntzan, batez beste puntuazioa handiagoa da maila soziokultural altuko familien kasuan, maila ertaineko eta baxuko familien kasuan baino. Alde horiek estatistikoki esanguratsuak dira. Etapa horretan, maila baxuko eta ertaineko familien puntuazioa baxuagoa da, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino.

ISEK mailen eta sare publiko eta itunduen arteko konparaketa, faktore bakoitzeko

Aurrez ikertutako faktoreen azterketa xehatu bat aurkeztuko dugu, baina oraingoan, ikerketako familien ikastetxe motaren arabera.

Ikastetxe publikoak eta ISEK

Taula honetan, aztertutako faktore bakoitzaren balioak agertzen dira, ikastetxe publikoetako familien ISEK mailaren (baxua-ertaina-altua) arabera.

Aztertutako aldagaien puntuazioa, ISEK mailaren arabera: Ikastetxe publikoak

ISEK	Komunikazioa	Elkarlana	Konpromisoa	Poztasuna	Itxaropenak
Baxua	2,5200	1,9474	3,4456	3,0024	3,3666
Ertaina	2,6188	2,0481	3,5706	3,0035	3,4885
Altua	2,6648	2,1276	3,6159	3,1640	3,5895

Ez dago alde esanguratsurik hiru ISEK mailen artean, honako faktore hauen kasuan:

- Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa.
- Ikastetxeko jardueretako elkarlana.
Baina badira alde esanguratsuak beste hiru faktoreetan:
- Hezkuntza proiektuarekiko konpromisoa.
- Ikastetxearekiko poztasuna.
- Seme-alaben errendimenduarekiko itxaropenak.


Zehazki, hezkuntza proiektuarekin konpromisoa faktorean, ikastetxe publikoetan, badaude aldeak ($F=12,338$ eta $p=,000$) ISEK baxuko familien eta maila ertaineko ($p=,000$) eta altuko ($p=,000$) familien artean.

Poztasuna faktorean ($F=3,858$ eta $p=,003$), badaude aldeak maila baxuko familien eta maila altuko familien ($p=,048$) artean, eta, halaber, maila ertainekoen eta altuko ($p=,032$) artean⁹.

Itxaropenak faktoreari ($F=9,880$ eta $p=,000$) dagokionez, badaude aldeak maila baxuko eta maila ertaineko ($p=,010$) eta altuko ($p=,000$) familien artean.

⁹ Alde horiek %95eko fidagarritasuna dute, baina ez %99koa; beraz, zuhurtziaz interpretatu behar dira emaitzak.

**Aztertutako aldagaien puntuazioa, ISEK mailaren arabera:
Ikastetxe publikoak**



Ikastetxe itunduak eta ISEK

Taula honetan, aztertutako faktore bakoitzaren balioak agertzen dira, ikastetxe itunduetako familien ISEK mailaren (baxua-ertain-altua) arabera.

Aztertutako aldagaien puntuazioa, ISEK mailaren arabera: Ikastetxe itunduak

ISEK	Komunikazioa	Elkarlana	Konpromisioa	Asetasuna	Itxaropenak
Baxua	2,5926	2,1027	3,4122	3,0239	3,45
Ertaina	2,7227	2,0677	3,5851	3,1333	3,5081
Altua	2,7219	2,2403	3,6667	3,2028	3,5469

Ikastetxe itunduen sarean, ez dago alde esanguratsurik honako faktore hauen kasuan:


- Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa.
- Ikastetxeko jardueretako elkarlana.
- Poztasuna.
- Itxaropenak.

Faktore bakar batean daude aldeak:

- Hezkuntza proiektuarekiko konpromisioa.

Hezkuntza proiektuarekin konpromisioa faktorean, desberdintasunak maila baxuko ($F=21,779$ eta $p=,000$) eta maila ertaineko ($p=,000$) nahiz altuko ($p=,000$) familien artekoak dira. ISEK maila ertaineko eta altuko ($p=,022$) familien artean ere, badaude alde esanguratsuak, baina %95eko fidagarritasunaz esaten ahal dugu hori.

Aztertutako aldagaien puntuazioa, ISEK mailaren arabera: Ikastetxe itunduak



Atal honen laburpen gisa, hezkuntza etapen arabera aztertutako faktoreetako ISEK mailen konparaketa-analisi bat jaso da taula honetan:


ISEK mailen arteko alde esanguratsuak, ikastetxe motaren arabera

	Komunikazioa	Elkarlana	Konpromisoa	Asetasuna	Itxaropenak
I. Publikoak	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI
I. Itunduak	EZ	EZ	BAI	EZ	EZ

Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa faktorean, ez dago alde esanguratsurik maila sozioekonomiko eta kultural desberdineko familien artean, ez ikastetxe publikoetan ez itunduak. Gauza bera gertatzen da familien elkarlana ikastetxeetako jardueretan faktorearen kasuan.


Baina, ikastetxeko hezkuntza proiektuarekiko konpromisoa faktorean, bai ikastetxe itunduak bai publikoetan, badaude aldeak familien maila sozioekonomiko eta kulturalen arabera. Familiek zenbat eta maila sozioekonomiko altuagoa izan, ikastetxeko hezkuntza proiektuarekiko inplikazioa handiagoa dute, bai ikastetxe publikoetan bai itunduak.

Ikastetxeko proiektuarekiko konpromisoa eta ISEK, ikastetxe motaren arabera



Familiek ikastetxearekin duten poztasuna faktoreari dagokionez, ikastetxe itunduetan ez dago alde esanguratsurik ISEK maila kontuan hartuz gero, baina, ikastetxe publikoetan, badira alde nabariagoak ISEK maila baxuko eta ertaineko eta maila altuko familien artean.


Ikastetxearekiko asetasuna eta ISEK, ikastetxe motaren arabera



Azkenik, seme-alaben ikasketekiko itzaropenak faktorea aintzat hartzen badugu, joera desberdina ikusten ahal da, ikastetxe publikoa ala itundua den.

Ikastetxe itunduetan ez da alde esanguratsurik maila sozioekonomiko eta kultural desberdineko familien artean beren seme-alabek lortzea nahi duten ikasketa mailarekiko itzaropenei dagokienez. Ikastetxe publikoetan, berriz, egoera desberdina da, aldea baitago familien mailaren arabera.

Seme-alabekiko itxaropenak eta ISEK, ikastetxe motaren arabera



ISEK ez aparteko itemak

Nahiz eta ISEK mailen eraginaren ondoriozko desberdintasunak egon aurreko indizeetan, item batzuen analisi zehatzagoa eginez gero ikusten da estatistikoki esanguratsua den alderik ez dagoela.

Beheko taulan, ohiko itemen eta hezkuntza-etapen arteko lotura ikusten da.

Faktorea	Itemak	Etapak
Komunikazioa	Tutoretza saioak eskatzen dituzten ikasturtean zehar	
	Ikastetxeko zuzendaritza taldeko kideekin bilerak edo elkarrizketak izaten dituzten	Lehen eta Bigarren Hezkuntza
	Ikastetxeko orientatzailearekin elkarrizketak izaten dituzten	
	Ikaslearen garapen pertsonal eta sozialari, gaitasunei, zaletasunei, motibazioei edo interesei buruzko alderdiak	Denak
Elkarlana	Ikastetxeari laguntza emateko jardueretan parte hartzen dutuzten ikastetxe barnekoetan, hala nola ipuin kontalarien saioetan, irakurketa laguntzekoetan, solasaldietan, lanbideari buruzko informazioa ematekoetan, berariazko lantegietan, etab. eta ikastetxetik kanpokoetan, hala nola museoetara egindako bisitaldietan, antzezlanetan, erakusketetan, txangoetan, etab.	Denak
Konpromisoa	Nire seme-edo alabari dagokionez ikastetxean hartzen diren erabakiekin bat egiten dut edo errespetatzen dituzten	Denak
	Nire semearekin edo alabarekin, ikasketen gainean hitz egiten dutuzten	Lehen eta Bigarren Hezkuntza
Poztasuna	Pozik nago nire seme-edo alabak ikastetxean jasotzen duen hezkuntzarekin	Denak
	Ados nago nire semearen edo alabaren tutorearekin	
Itxaropenak	Etxean erakusten diot ikastea edo estudiantzea garrantzitsua dela	Denak

- a. Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa atalean, ez dago alderik etapen artean, familiek tutoretzak eskatzen dituztenean, zuzendaritza taldearekin biltzen direnean (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan), orientatzailearekin elkarriketak izaten dituztenean, edo ikastetxearekin beren seme-alaben garapen pertsonalari buruz hitz egiten dutenean.
- b. Ikastetxearekiko elkarlana atalean, ez dago alde esanguratsurik etapen artean, ikastetxeari laguntza emateko jardueretako parte-hartzeari dagokionez, hala nola, eskola barnekoetan, txangoetan, etab.
- c. Ikastetxearen proiektuarekiko konpromisoa atalean, ez dago alderik etapen artean, ikastetxeak hartzen dituen erabakiak errespetatzeari edo gurasoek seme-alabekin ikasketei buruz hitz egiteari dagokionez (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan).
- d. Ikastetxearekiko poztasuna atalean, ez dago desberdintasun esanguratsurik etapen artean, ikastetxearekiko eta tutorearekiko poztasun mailari dagokionez.
- e. Seme-alabekiko itxaropenak atalean, ez da alderik etapen artean, etxean ikastea eta estudiatzea garrantzitsua dela erakusteari dagokionez.


Azpimarratzekoa da faktore horietan guztietan ez dela familiaren maila sozioekonomiko eta kulturalak eragindako alderik aurkitu. Horrek esan nahi du familiak kezkatzen direla seme-alaben hezkuntzaz, edozein taldetakoak izanda ere.

ISEK eta eskola errendimendua

Atal honetan, ikasleen errendimendu akademikoa aldagaia aztertuko dugu, bakoitzaren familiaren maila soziokulturala kontuan hartuta. Analisi hori Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza eginen da, Haur Hezkuntza albo batera utziz, ez baita egokia errendimendu akademikoa aztertzea kasu horretan.

ISEK eta eskola errendimendua Lehen Hezkuntza

Lehenik, nabarmendu beharrekoa da errendimendu akademikoa aldagaia kalkulatzeko gurasoek seme-alaben aurreko ikasturteko batez besteko notari buruzko galderari eman-




dako erantzunak erabili direla¹⁰. Grafiko honetan, familien maila sozioekonomiko eta kulturean oinarrituta, batez besteko noten banaketa ikusten da, ehunekotan.

Ehunekoetan oinarrituta, gutxiegi edo nahiko ongi ateratzen dituzten ikasleak gehiago dira ISEK maila baxukoak, ISEK maila ertaineko eta altukoak baino. Normalean, azken horiek oso ongi-bikain notak ateratzen dituzte, eta, zenbaitetan, kategoria hori baino baxuagoko mailetan kokatzen dira.

Bestalde, ikasmaila errepikatzeari buruz egindako galdera ere hartu da kontuan. Beheko grafikoan, ikasturteren bat edo beste errepikatu duten ikasleen familien datuak aurkezten dira, maila sozioekonomiko eta kulturalak bereizita¹¹.

**Ikasmaila errepikatzea, ISEK mailaren arabera:
Lehen H.**



Ikusten denez, maila errepikatzeari buruzko galderari baietz erantzun dioten familien artean, errepikatzen dutenen artetik, ISEK baxuko ikasleak dira gehienak; ISEK ertaineko familietako seme-alabak baxukoak baino gutxiago dira, baina altukoak baino gehiago.


ISEK eta eskola errendimendua Bigarren Hezkuntzan

Grafiko honetan, familien maila sozioekonomiko eta kulturean oinarrituta, Bigarren Hezkuntzako ikasleen batez besteko noten banaketa ikusten da, ehunekotan.

¹⁰ Jakitun gara aldagai horrek mugak izaten ahal dituela, gurasoen hautematea okerra izaten ahal delako. Horregatik, zuhurtziaz interpretatu behar dira emaitzak.

¹¹ Kontuan hartu behar da seme-alabaren batek ikasturtea errepikatu zuela adierazi duten familiek galdetegia erantzun zuten familia guztien ehuneko txiki bat ordezkatzen dutela. Horregatik emaitzak zuhurtziaz interpretatu behar ditugu.


**Batez besteko nota, ISEK mailaren arabera:
Bigarren H.**



Ikusten denez, errendimendu akademikoak dituen hiru mailetan antzera banatzen dira ISEK baxuko eta ertaineko familietako ikasleen notak. Maila altuko familietako ikasleen kasuan, beste joera bat dago, ordea. Haien batez besteko errendimendua, nagusiki, oso ongi-bikain kategorian kokatzen da.

Bigarren Hezkuntzan maila errepikatzen dutenen kasuetan, grafiko honetan ikusten denez, ikasle errepikatzailen kopurua murriztu egiten da beren familien maila sozioekonomikoak gora egin ahala.

**Ikasmaita errepikatzea, ISEK mailaren arabera:
Bigarren H.**



ISEK eta familien parte-hartzea Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan

Atal honetan, gurasoek Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan nolako parte-hartzea duten deskribatzen da, Lehen Hezkuntzako ikasleen familiak eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen familiak bereiziz. Haur Hezkuntzako familiak ez dira kontuan hartu, denbora gutxi baitaramate ikastetxean.

Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan parte-hartzea, Lehen Hezkuntzan

Gurasoek elkarrekin duten parte-hartzeari buruzko datuak daude adierazita grafikoan, eta ezaugarri hauek daude jasota:


- Seme-alabaren ikastetxeko guraso elkarte bateko kide den ala ez.
- Ikastetxeko guraso elkarte zuzendaritza batzordeko kide gehienak ezagutzen dituen ala ez.
- Ikastetxeko guraso elkarte zuzendaritza batzordeko kide den edo izan den ala ez.
- Ikastetxeko guraso elkarte zuzendaritza batzordeko kide izateko prest egonen litzatekeen ala ez.

Beharrezkoa da aurrez kontuan izatea baietz eta ezetz erantzuten duten familien ehunekoak. Taula honetan, parte-hartzearen datuak daude jasota:

	% Bai	% Ez
Guraso Elkarte kide naiz edo izan nintzen	68	38
Zuzendaritza batzordeko kideak ezagutzen ditut	50	50
Zuzendaritza batzordeko kide naiz edo izan nintzen	12	88
Zuzendaritza batzordeko kide izateko prest nago	32	68

Familien baiezko erantzunetatik abiatuta, honako hau da ISEK mailaren arabera banaketa:

Guraso Elkarteetan parte-hartzea, familien ISEK mailaren arabera: Lehen H.



Guraso Elkarteetako kideen artean, gehienak maila sozioekonomiko eta kultural ertaineko familiak dira. Gauza bera gertatzen da zuzendaritza batzordeko kide diren ala ez galdetu zaienean, edo batzorde horretako kide izateko prest al dauden galdetzean.

Lau aldagaietan parte-hartzearen ehunekoa nahikoa altua da maila soziokultural ertaineko familietan, maila baxuko eta altuko familien aldean.

Lagina osatu duten Nafarroako familiek Eskola Kontseiluetan zer-nolako parte-hartzea duten jakiteko, honako galdera hauek egin ziren:


- Ikastetxeko Eskola Kontseiluko hauteskundeetan parte hartzen duten ala ez.
- Eskola Kontseiluko familien ordezkariak ezagutzen dituen ala ez.
- Eskola Kontseiluko kide den edo izan den ala ez.
- Eskola Kontseiluko kide izateko prest egonen litzatekeen ala ez.

Honako hauek izan ziren Lehen Hezkuntzako familien erantzunak:

	% Bai	% Ez
Eskola Kontseiluko hauteskundeetan parte hartzen dut	45	55
Eskola Kontseiluko familien ordezkariak ezagutzen ditut	49	51
Eskola Kontseiluko kide naiz edo izan naiz	6	94
Ikastetxeko Eskola Kontseiluko kide izateko prest egonen nintzateke	25	75

Erantzun horietatik abiatuta, grafiko honetan jaso da parte-hartzearen banaketa, ISEK mailaren arabera.

Eskola Kontseiluetan parte-hartzea, familien ISEK mailaren arabera: Lehen H.



Guraso Elkarteetako parte-hartzearekin gertatzen den bezala, hauteskundeetan parte hartzen duten familia guztien artean, ehunekotan, ordezkaritza handiagoa dute maila sozioekonomiko ertaineko ikasleen gurasoek.

Eskola Kontseiluko kideen artean, maila ertaineko familiak dira nagusi, Eskola Kontseiluko kide izateko prestutasuna duten familien artean bezala.


Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan parte-hartzea, Bigarren Hezkuntzan

Hezkuntza etapa honetan, Guraso Elkarteetan parte hartzen duten ala ez erantzun duten familien ehunekoak taula honetan jaso dira:

	% Bai	% Ez
Gurasoen Elkarteko kide naiz edo izan nintzen	42	58
Zuzendaritza batzordeko kideak ezagutzen ditut	19	81
Zuzendaritza batzordeko kide naiz edo izan nintzen	5	95
Zuzendaritza batzordeko kide izateko prest nago	23	77

Bigarren Hezkuntzako familien baiezoak aintzat hartuz gero, honako hau da ISEK mailaren araberrako banaketa:

Guraso Elkarteetan parte-hartzea, familien ISEK mailaren arabera: Bigarren H.




Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, Bigarren Hezkuntzan, Guraso Elkarteetako eta haietako zuzendaritza batzordeetako kideen artean, maila ertaineko familien ehunekoa da handiena.

Honako hauek izan dira Bigarren Hezkuntzako familien erantzunak:

	% Bai	% Ez
Eskola Kontseiluko hauteskundeetan parte hartzen dut	18	82
Eskola Kontseiluko familien ordezkariak ezagutzen ditut	18	82
Eskola Kontseiluko kide naiz edo izan naiz	3	97
Ikastetxeko Eskola Kontseiluko kide izateko prest egonen nintzateke	17	83

Erantzun horietatik abiatuta, grafiko honetan jaso da Bigarren Hezkuntzako familien parte-hartzearen banaketa, ISEK mailaren arabera.

Eskola Kontseiluetan parte-hartzea, familien ISEK mailaren arabera: Bigarren H.



Guraso Elkarteetako parte-hartzearen antzekoa da Eskola Kontseiluetakoa. Joera bera da: maila soziokultural ertaineko familiek parte gehiago hartzen dute eta prestutasun handiagoa erakusten dute.

Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren Indizearen (GHI) deskribapena

Gurasoek eskolan duten hezkuntza inplikazioa edo konpromisoa neurtzera hurbiltzen lagunduko digun indize bat kalkulatzeko da atal honen helburua. Horretarako, ikastetxeetako familiek parte-hartzeari buruz erantzundako galdetegiko faktoreei forma ematen dien item bakoitzaren deskribapen-ikerketa batetik abiatu gara, eta Gurasoen Hezkuntza Inplikazioa kontzeptuarekin lotura handiena duten itemak aukeratu dira. Batezbesteko antzekoak dituzten itemen artean, aldakorrenak hautatu dira.

Hala, aldagai hauek osatu dute indizea:

- Ikasturtean zehar tutoretza saioak eskatzen dituzten ala ez.
- Gurasoentzako prestakuntza jardueratan parte hartzen duten ala ez.
- Ikastetxea askotariko jardueratan babesten duten ala ez.
- Ikastetxearen hezkuntza helburuekin bat egiten duten ala ez eta helburu horiek gero etxean garatzen dituzten ala ez.
- Beren seme-alabentzat hartzen diren erabakiak errespetatzen dituzten ala ez.
- Ikastetxea berentzat hartzen duten ala ez.
- Seme-alabei helburu zehatz eta errealistak jartzen dizkieten ala ez.
- Seme-alabekin beraiekiko hezkuntza itzaropenei buruz hitz egiten duten ala ez.

Behean, Nafarroako familien lagina oinarri hartuta, Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren indizearen batez besteko balioak aurkezten dira, hezkuntza etapa bakoitzeko.

	Batezbestekoa	Desbideratzea
Haur Hezkuntza	2,82	0,41
Lehen Hezkuntza	2,68	0,5
Bigarren Hezkuntza	2,66	0,40


Ez da alde esanguratsurik aipatutako batez besteko balio horien artean, baina gurasoek eskolarekiko duten hezkuntza inplikazioak behera egiten du hezkuntza etapak aurrera egin ahala.

GHI eta beste aldagaiekin duen harremana

Atal honetan, gurasoek seme-alaben eskola hezkuntzan duten inplikazioa nolakoa den aztertuko dugu, familien maila soziokulturala kontuan hartuta, batetik, eta ikastetxe sare mota kontuan hartuta, bestetik. Hezkuntza etapa bakoitzarekin eginen ditugu azterketa horiek.

GHIren eta ISEK mailen arteko harremana

Grafiko honetan, Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren indizearen batez besteko balioak daude adierazita, familien ISEK mailak kontuan hartuta, hezkuntza etapa bakoitzean.




Haur Hezkuntzan, familien gizarte eta hezkuntza mailaren arabera desberdintasunak aipagarriak dira, nahiz eta estatistikoki ez izan hain esanguratsuak ($F=2,33$ eta $p=,09$; esanguratsuak izateko mugan daude, dena den). Lehen Hezkuntzan, ordea, aldeak esanguratsuak dira ISEK maila baxuko eta ertaineko ($F=10,170$ eta $p=,003$) familien artean eta ISEK maila baxuko eta altuko ($p=,000$) familien artean.

Gisa berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere, maila guztien arteko alde esanguratsuak aurkitu dira ($F=10,374$, $p=,020$ eta $p=,000$, hurrenez hurren, ISEK maila baxuko eta ertaineko eta ISEK maila baxuko eta altuko familiei dagokienez).

GHIren eta hezkuntza sareen arteko konparaketa

Behean, Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren emaitzak aurkezten dira, ikastetxe mota kontuan hartuta, hezkuntza etapa bakoitzean. Batez besteko balioak daude jasota grafikoa honetan:




Haur Hezkuntzan, ez dago alderik ikastetxe publikoetako eta ikastetxe itunduetako familien artean, gurasoen inplikazioari dagokionez. Alde handiagoak daude, ordea, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Dena den, lehen kasuan, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak; Bigarren Hezkuntzan, aldiz, esanguratsuak dira ($F=17,982$ eta $p=,000$).

GHI eta eskola errendimendua

Seme-alaben eskola errendimenduari dagokionez, gurasoek eskola hezkuntzan duten inplikazioa neurtzeko, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza soilik ikertu dira.


Horretarako, errendimendua aldagaia hiru mailatan bereizi da, aurreko ikasmailan ikasleak ateratako notak kontuan hartuta: baxua, ertaina eta altua. Hala, errendimendu baxua bost baino baxuagoa den nota multzoa izanen da. Errendimendu ertaina, bost eta sei koma laurogeita hemeretzi arteko nota multzoa; eta errendimendu altua, zazpi baino altuagoa den nota multzoa.



Lehen Hezkuntzan, gurasoen inplikazioan, aldeak esanguratsuak dira errendimendu baxuko seme-alabak dituzten familien eta errendimendu altuko seme-alabak dituzten familien artean ($F=7,369$ eta $p=,002$). Ikusten da seme-alaben errendimendu akademikoa zenbat eta altuagoa, gurasoen inplikazioa ere handiagoa dela.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, alde esanguratsuak errendimendu ertaineko ikasleen familien eta errendimendu altuko ikasleen familien artekoak dira ($F=6,651$ eta $p=,005$). Lehen Hezkuntzan ere, joera bera ikusten da.

Ikasmaita errepikatzeari dagokionez, ikasmaita errepikatu duten ikasleen gurasoek, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarreanean, hezkuntza inplikazioan batez besteko puntuazio baxuagoa dute errepikatu ez duten ikasleen gurasoek baino.



Bi etapetan aurkitutako aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($t=2,438$ eta $p=,015$; $t=4,343$ eta $p=,000$, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, hurrenez hurren).

Ondorioak

Ondoren, ikerketa honen ondorio nagusiak azaltzen dira:

1. Ikusitakoa aintzat hartuz esaten ahal da familiek ikastetxearekin duten komunikazioa oro har egokia dela, baina, familiek zenbat eta maila sozioekonomiko eta kultural altuagoa izan, hobe da ikastetxearekin duten komunikazioa. Indize horretako itemen analisi xehatuago bat eginda ikusten da maila sozioekonomiko eta kulturalak eragindako alderik ez dagoela familiek tutoretzak eskatzeari, zuzendaritza taldearekin biltzeari (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan), orientatzailearekin elkarrizketak izateari edo ikastetxearekin beren seme-alaben garapen pertsonalari buruz hitz egiteari dagokionez.
2. Ikastetxearekin elkarlanean aritzea aintzat hartuz gero, ez dago alde esanguratsurik maila ertaineko eta maila altuko familien artean, ezta maila ertaineko eta baxuko familien artean ere. Baina, badira alde batzuk maila baxuko eta altuko artean. Dena den, elkarlana egokia da, edozein izanda ere familien maila. Ikastetxearekiko elkarlana atalean, ez dago alde esanguratsurik, ikastetxeari laguntza emateko jardueretako parte-hartzeari dagokionez, hala nola, eskola barnekoetan, txangoetan, etab.
3. Familiak zenbat eta maila altuagoa izan, handiagoa da konpromisoa eta inplikazioa ikastetxeko hezkuntza proiektuan. Dena den, kontuan izan behar da familien konpromisoa, oro har, handia dela. Indize horri forma ematen dioten itemen analisi xehatuagoa eginda, ez dago alderik, ikastetxeak hartzen dituen erabakiak errespetatzeari edo gurasoek seme-alabekin ikasketei buruz hitz egiteari dagokionez (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan).
4. Familiak pozik daude ikastetxearekin, oro har, baina maila altuko familiek poztasun handiagoa adierazten dute, maila ertainekoek eta baxukoek baino.
5. Seme-alabekiko dituzten itxaropenei dagokienez, ez dago alde esanguratsurik maila ertaineko eta maila altuko familien artean, baina bai maila baxuko familien eta gaine-

rako mailetak familien artean. Ikastearen eta estudiantzearen garrantzia transmititzeari dagokionez ere ez dago alderik.

6. Haur Hezkuntzako ikasleen familien artean, maila sozioekonomiko eta kulturala kon-tuan izanda ez da desberdintasun esanguratsurik ikastetxearekin duten komunikazioan eta lankidetzan, seme-alabek jasotzen duten hezkuntzarekiko ajetasunean eta seme-alabekiko dituzten itxaropenetan. Familiek ikastetxearekiko dituzten konpromisoei dagokionez soilik daude aldeak.
7. Lehen Hezkuntzako ikasleen familien artean, maila baxukoek puntuazio baxuagoa dute honako faktore hauetan, beste mailetak familien alderatuz gero: komunikazioa eta konpromisoa ikastetxearekin, eta seme-alabekiko itxaropenak.
8. Elkarlana, konpromisoa, poztasuna eta itxaropena aztertzen direnean DBHko ikasleen familien artean, alde esanguratsuak daude familien gizarte eta hezkuntza mailaren arabera. Ikastetxearekin duten komunikazioan soilik ez dago alderik.
9. Badirudi aldeak progresiboki sortzen direla ikasleek hezkuntza etapetan aurrera egin ahala, familien mailaren arabera, komunikazioari, elkarlanari, parte-hartzeari, ikaste-txearekiko poztasunari eta gurasoen itxaropen mailari dagozkien aldagaietan.
10. Hezkuntza publikoan, gizarte eta hezkuntza maila altuko, ertaineko edo baxuko familia bateko seme-alaba izateak eragina izaten du gurasoek ikastetxearekin duten poztasunean. Hezkuntza itunduan, ordea, badirudi ez duela eraginik. Gauza bera gertatzen da gurasoek seme-alaben garapen akademikoarekiko dituzten itxaropenekin. Dena den, beste aldagaiak aintzat hartzen baditugu (komunikazioa, elkarlana eta ikastetxe-ko hezkuntza proiektuarekiko konpromisoa), badirudi ez dagoela familien arteko alderik ikastetxe publikoen eta itunduen artean.
11. Ehunekotan egindako banaketan oinarrituta, maila baxuenetako familietako ikasle gehiago dira Gutxiegi eta Nahiko-Ongi kategorietan banatuta daudenak maila ertainekoak eta altukoak baino. Dena den, azken horiek Oso ongi-Bikain kategorietan banatu ohi dira, gehienak; gutxiago dira kategoria horretatik behera banatzen direnak.
12. Ikasmailaren errepikatze indizeak behera egiten du ikasleen familien maila sozioeko-nomikoak gora egin ahala. Hau da, maila ertaineko eta altuko familietako ikasleek gutxiagotan errepikatzen dute ikasmaila, maila sozioekonomiko eta kultural baxuko ikasleek baino.
13. Guraso Elkarlanean kideen artean, gehienak maila sozioekonomiko eta kultural ertaineko familiak dira. Gauza bera gertatzen da Eskola Kontseiluetako parte-hartzearekin ere.
14. Haur Hezkuntzako ikasleen familiek puntuazio altuagoa dute Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren indizean Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen familiek baino.
15. Haur Hezkuntzan, ez dago alderik maila sozioekonomiko desberdinetako familien artean, gurasoen hezkuntza inplikazioari dagokionez. Baina, Lehen Hezkuntzan eta Bi-garren Hezkuntzan, maila sozioekonomiko jakinekoak izateak eragina du gurasoen hezkuntza inplikazioan (GHI indizearen arabera neurtua).

16. Ikastetxe itunduetako ikasleen familiek puntuazio altuagoa izan ohi dute Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren indizean, ikastetxe publikoetako familiek baino. Baina, Haur Hezkuntzan, ez da halako alderik.
17. Lehen Hezkuntzan, errendimendu baxuko ikasleen gurasoek puntuazio baxuagoa dute Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren indizean errendimendu maila ertaineko eta altuko ikasleen gurasoek baino. Bigarren Hezkuntzan, berriz, errendimendu altuko ikasleen familiek puntuazio altuagoak dituzte, errendimendu ertaineko eta baxuko ikasleen familiek baino.
18. Ikasmila errepikatu duten ikasleen gurasoek, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan, batez besteko puntuazio baxuagoa dute Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren indizean errepikatu ez duten ikasleen gurasoek baino.

Bibliografía

- BOLÍVAR, A., “Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común”. *Revista de Educación*, 339, 2006, 119-146.
- CASTRO, M. et al., “Participación familiar y rendimiento académico. Una síntesis meta-analítica”. En: *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 83-106.
- CASTRO, M. et al., “Participación familiar y rendimiento académico de alumnos españoles de Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria”. *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 167-179.
- CASTRO, M. et al., “Evaluación del impacto de la participación familiar sobre la competencia matemática en PISA 2012. Un estudio internacional comparado”. *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 107-126.
- CONSEJO ESCOLAR DEL ESTADO, *Las relaciones entre familia y escuela; experiencias y buenas prácticas*. XXIII Encuentro de Consejos Escolares Autonómicos y del Estado, Cantabria, 2014.
- CONSEJO ESCOLAR DEL ESTADO, *Las relaciones entre familia y escuela. Experiencias y buenas prácticas*. Encuentro de Consejos Escolares Autonómicos y del Estado. Madrid, 2015, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, “Resultados de PISA 2015 en Navarra”, Iruña, 2017, Nafarroako Gobernua.
- EGIDO, I., “Marcos normativos de la participación de las familias en los sistemas educativos europeos. Una visión comparada”. *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 35-56.
- GONZÁLEZ, C. REPÁRAZ y A. SANZ, *La participación de las familias en el sistema educativo de Navarra*, Iruña, 2016, Nafarroako Eskola Kontseilua.
- JUNTA DE PARTICIPACIÓN AUTONÓMICA, “Mirando al futuro”, *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 181-224.
- LÓPEZ RUPÉREZ, F., “Presentación”. *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 7-9.
- PARRA, GARCÍA, GOMÁRIZ y HERNÁNDEZ, “Implicación de las familias en los Consejos Escolares de los Centros”. *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 149-165.
- REPÁRAZ, Ch. y NAVAL, C., “Bases conceptuales de la participación de las familias”. En: *Consejo Escolar del Estado. La participación de las familias en la educación escolar*, Madrid, 2014, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 21-34.

SARRAMONA J. y RODRIGUEZ T., "Participación y calidad de la educación". *Aula Abierta*, 38 zbk. (1), 2010, 3-14.

TEDESCO, J. C., *El nuevo pacto educativo. Educación, competitividad y ciudadanía en la sociedad moderna*. Madril, 1995, Anaya.

Eranskina Familien parte-hartzea ikastetxeetan

Familiendako galde-sorta

Autonomia erkidegoa:

Ikastetxea:

Ikasmaila:

Galde-sorta hau Nafarroako Eskola Kontseiluak eta Nafarroako Unibertsitateak sustatu dute, zuen seme-alabak eskolaturik dauden ikastetxeetan familiek zer nola parte hartzen duzuen jakiteko xedearekin. Zure erantzunak oso garrantzitsuak dira lagungarriak izan daitezkeelako parte-hartze horren kopurua eta kalitatea ezagutzeko eta hobetzeko eta, horrekin batera, ikasleen hezkuntza osotua erdiesteko. Hori dela-eta, erregutzen dizut egindako galdera guztiei zintzotasunez erantzutea. Jakizu isilpekotasuna bermaturik dagoela. Ikastetxean haur bat baino gehiago eskolaturik baduzu, bete ezazu galde-sorta ikastetxetik ekarri dizun semearen edo alabaren errealitatea erreferentzia modura harturik. Erregutzen dizugu, galde-sorta bete ondoren, zure semearen edo alabaren tutoreari itzultzea, ahal dela astebete baino lehen. Mila esker zure laguntzagatik!

I. Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa

Marka ezazu gurutze batez, zure ustez, ondoko gai bakoitzeko edukia zenbatetan gertatzen den.

	Inoiz ez	Batuetan	la beti	Beti
1. Tutoretza saioetara joaten naiz nire semearen edo alabaren tutoreak hirtzordua ematen didanean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Tutoretza saioak eskatzen ditut ikasturtean zehar	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Tutoreak gurasoekin taldean egindako bileretara joaten naiz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Tutorearekin hitz egiten dut harreman informaletan, ikastetxetik ateratzean edo han sartzean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Bilerak izaten ditut tutorea ez den gainerako irakasleekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Ikastetxeko zuzendaritza taldeko kideekin bilerak edo elkarrizketak izaten ditut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Ikastetxeko orientatzailearekin elkarrizketak izaten ditut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Ikastetxekoekin honela komunikatzen naiz:				
8.1 Bertaratuz, zuzenean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8.2 Zeharka, telefonoz, SMS bidez, posta elektronikoz, etab.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8.3 Komunikatzeko beste modu batzuk	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Ikastetxekoekin ditudan harremanetan, aritzen gara nire semeari edo alabari buruzko gai hauen gainean:				
9.1 Diziplina, bertaratze-hutsegiteak edo antzekoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9.2 Ikaskuntzaren jarraipena: alderdi positiboak eta zailtasunak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9.3 Ikaslearen garapen pertsonal eta sozialari, gaitasunei, zaletasunei, motibazioei edo interesei buruzko alderdiak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9.4 Bestelako gaiak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10. Ikastetxekoekin izaten ditudan bilerak egokiak iruditzen zaizkit.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11. Zenbateraino daude eskuragarri eta komunikaziorako prest ondokoak?:				
11.1. Tutorea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11.2. Tutorea ez den gainerako irakasleak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11.3. Orientatzailea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11.4. Zuzendaritza taldea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

II. Familien eta ikastetxearen arteko lankidetzaz

Esan zein den zure parte-hartzea, zure semea edo alaba eskolaturik dagoen ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan.

	Ez dakit ikastetxeak antolatzen dituen	Ezagutzen ditut	Joaten naiz	Kolaboratzen eta parte hartzen dut
12. Gurasoendako prestakuntza jardueretan (guraso eskolak, hedapenerako solasaldi edo hitzaldiak, etab.)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13. Ikastetxean sortutako lan batzordeetan (ziklokoak, bizikidetzakoak, azpiegituretakoak, dirua biltzekoak, etab.)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14. Ikastetxeari laguntza emateko jardueretan: ikastetxe barnekoetan, hala nola, ipuin kontalarien saioetan, irakurketa laguntzekoetan, solasaldietan, lanbide mailako informazioa ematekoetan, berariazko lantegietan..., eta ikastetxetik kanpokoetan, hala nola, museoetara egindako bisitaldietan, antzezlanetan, erakusketetan, txangoetan...	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15. Bestelako jarduerak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Esan zein den zure parte-hartzea hezkuntza proiektuan.

	Inoiz	Batzuetan	la beti	Beti
16. Hezkuntza helburuak ikastetxearekin partekatzen ditut gero etxean garatu ahal izateko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17. Nire semeari edo alabari dagokionez ikastetxean hartzen diren erabakiekin bat egiten dut eta errespetatzen ditut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18. Nire semearekin edo alabarekin ikasketen gainean hitz egiten dut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19. Ezagutzen dut nire semeak edo alabak nola antolatzen duen ikasteko denbora	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20. Badakit nire semea edo alaba eskolara joaten den edo ez	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
21. Gure familian joan ohi gara zinemara, antzerkira, museoetara, bidaietara, kontzertuetara, erakusketetara eta abarrera	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22. Badakit nire semeak edo alabak zer jarduera mota egiten duen aisialdian	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23. Nire semeak edo alabak curriculumez kanpoko jarduerak edo jarduera osagarriak egitearen alde nago, hala nola, hizkuntzak, informatika, musika, dantza, kirola, akademiak, etab.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24. Nire semeak edo alabak ikasketetan duen autonomia eta erantzukizuna sustatzen ditut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25. Nire semeari edo alabari esaten diot ordenagailuak eta mugikorrek modu arduratsuan erabili behar dituela	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26. Etxean ikasteko giro ona sustatzen dut (ikastera motibatuz, ahal dela hotsik ez eginez, ikasteko toki egokia jarritz, etab.)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

III. Familiak ikastetxearekin pozik dauden eta ikastetxeko kide sentitzen diren

Adieraz ezazu gurutze batez zenbateraino zauden ados ondoko baieztapenekin 1etik 10eko eskala batean (1ak esan nahi du ez zaudela batere ados eta 10ak, berriz, adostasunik handiena duzula).

- | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|--|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| 27. Ikastetxeko kide sentitzen naiz; neurea den zerbait balitz bezala hartzen dut | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 28. Ikastetxeko talde batek kirol, lehiaketa... batean parte hartzen badu, huraxe da nire taldea | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 29. Pozik nago nire semeak edo alabak ikastetxean jasotzen duen hezkuntzarekin | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 30. Ados nago nire semearen edo alabaren tutorearekin | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 31. Pozik nago ikastetxeak oro har duen giroarekin | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 32. Pozik nago ikastetxeko familiekin | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

IV. Familien itxaropenak

Adieraz ezazu gurutze batez zenbateraino zauden ados ondoko baieztapenekin 1etik 10eko eskala batean (1ak esan nahi du ez zaudela batere ados eta 10ak, berriz, adostasunik handiena duzula).

- | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| 33. Nire semeak edo alabak ikasmila gaindituko duela espero dut | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 34. Uste dut nire semea edo alaba ahalegintzen dela eta lan egiten duela | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 35. Errendimendu aldetik, jomuga zehatzak eta errealistak jartzen dizkiot | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 36. Nire semearen edo alabaren ahalegina balioesten dut eta jakinarazten diot | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 37. Etxean erakusten diot ikastea eta estudiatzea garrantzitsua dela | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 38. Lan, ordena eta pertseberantziako azturak erakusten dizkiot | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 39. Uste dut nire semearen edo alabaren etorkizuna jasotzen ari den hezkuntzaren araberakoa izanen dela | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 40. Nire semeari edo alabari esaten diot eskolari dagokionez zer itxaropen daukadan harengan | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

41. Zein uste duzu izanen dela zure semeak edo alabak lortuko duen ikasketa-mailarik handiena?
- Nahitaezko eskolatzea
- Erdi mailako heziketa zikloa
- Batxilergoa edo goi mailako heziketa zikloa
- Unibertsitateko ikasketak

V. Guraso elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan parte hartzea

Ikastetxeko guraso elkarteari dagokionez, erantzun galdera hauek.

- | | Bai | Ez |
|--|--------------------------|--------------------------|
| 42. Nire semea edo alaba eskolaturik dagoen ikastetxeko guraso elkarte bateko kide naiz edo izan nintzen | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 43. Ikastetxeko guraso elkarteko zuzendaritza batzordeko kide gehienak ezagutzen ditut | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 44. Ikastetxeko guraso elkarteko zuzendaritza batzordeko kide naiz edo izan nintzen | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 45. Ikastetxeko guraso elkarteko zuzendaritza batzordeko kide izateko prest egonen nintzateke | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

Esan zein den zure parte-hartzea, zure semea edo alaba eskolaturik dagoen ikastetxeko guraso elkarteak antolatzen dituen jardueri dagokienez.

- | | Ez dakit guraso elkarteak antolatzen dituen | Ezagutzen ditut | Joaten naiz | Kolaboratzen eta parte hartzen dut |
|--|---|--------------------------|--------------------------|------------------------------------|
| 46. Biltzar orokorretan edo bileretan | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 47. Gurasoen prestakuntzarako jardueretan, jarduera soziokulturaletan, bizikidetzakoetan, etab. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 48. Gizarte-ekintzako edo laguntza-ekintzako jardueretan, elkartasun kanpainetan, jarduera ekologikoetan edo ingurumenekoetan, etab. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 49. Bestelako jardueretan | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

Ikastetxeko eskola kontseiluari dagokionez:

- | | Bai | Ez |
|--|--------------------------|--------------------------|
| 50. Parte hartzen dut ikastetxeko eskola kontseiluko hauteskundeetan | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 51. Ezagutzen ditut ikastetxeko eskola kontseiluko familien ordezkariak | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 52. Ezagutzen ditut familien ordezkari ez diren eskola kontseiluko gainerako kideak | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 53. Ikastetxeko eskolako kontseiluko kide naiz edo izan nintzen | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 54. Ikastetxeko eskola kontseiluko kide izateko prest egonen nintzateke | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 55. Ezagutzen ditut eskola kontseiluetako gurasoen ordezkarien eginkizunak | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 56. Izaten dut aski informazio eskola kontseiluko hauteskunderi buruz | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 57. Eskola kontseiluko ordezkari izateko hauteskundeetan hautagaiei buruz jasotzen dudana informazioa egokia izaten da | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

Zure semeak edo alabak etxeko lanak egiten dituenean, jakin nahi dugu normalean nork laguntzen, bideratzen edo gainbegiratzen duen bere lana. Adierazi behar d(ir)en aukera(k).

- | | |
|---|--------------------------|
| 58. Inork ez du laguntzen | <input type="checkbox"/> |
| 59. Amak edo aitak | <input type="checkbox"/> |
| 60. Familiako beste kide batzuek | <input type="checkbox"/> |
| 61. Zaintzaileak edo irakasle partikularrak | <input type="checkbox"/> |
| 62. Beste batzuek | <input type="checkbox"/> |

Adieraz ezazu gurutze batez zein diren zure semearen edo alabaren hezkuntza prozesuan zu inplikatzeko baldintzatzen duten arrazoiak edo zailtasunak (esan zure ustez egokiak diren guztiak).

- | | |
|--|--------------------------|
| 63. Nire semea edo alaba beregaina da; ez du inork laguntzerik behar | <input type="checkbox"/> |
| 64. Ez dut uste nire semeak edo alabak eskolan zer ikasten duen jakin behar dudarik | <input type="checkbox"/> |
| 65. Zaila da nire semeak edo alabak ikasten duena eta horrek ez dit laguntzen uzten | <input type="checkbox"/> |
| 66. Ez dut hizkuntza behar adina ezagutzen | <input type="checkbox"/> |
| 67. Ez dut astirik | <input type="checkbox"/> |
| 68. Nire semeak edo alabak ez du nahi guk laguntzea | <input type="checkbox"/> |
| 69. Ezin diot eskola laguntzarik eman (klase partikularrak) zailtasun ekonomikoak ditudalako | <input type="checkbox"/> |
| 70. Bestelako arrazoi eta zailtasunak | <input type="checkbox"/> |

VI. Familiaren testuinguruaren gaineko informazioa

Erantzun zure familia unitateari buruzko galdera hauek.

71. Esaguzu familiaren etxebizitzan nor bizi den. "Beste batzuk" hautatzen baduzu, esan nor diren:
- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| Aita, ama eta seme-alabak | <input type="checkbox"/> |
| Ama eta seme-alabak | <input type="checkbox"/> |
| Aita eta seme-alabak | <input type="checkbox"/> |
- Beste batzuk
72. Amaren adina:
73. Aitaren adina:
74. Zenbat seme-alaba dituzue?
75. Galde-sorta hau ekarri dizun semea edo alaba zenbatgarrena da? ...
76. Familiaren etxebizitzatik ikastetxerainoko joan-etorriak, nola egiten dira (esan ohikoena):
- | | |
|------------------------|--------------------------|
| Oinez | <input type="checkbox"/> |
| Norberaren ibilgailuan | <input type="checkbox"/> |
| Eskola garraioan | <input type="checkbox"/> |
| Garraio publikoan | <input type="checkbox"/> |
77. Zenbat denbora behar du zure semeak edo alabak etxetik ikastetxera joateko?
78. Familiaren etxebizitzan zenbat lagun bizi zarete?
79. Zure etxebizitzak zenbat gela (logela modura erabilitakoak) ditu?
80. Galde-sorta ekarri dizun semea edo alaba, Espainian jaiotakoa da?
- | | |
|-----|--------------------------|
| Bai | <input type="checkbox"/> |
| Ez | <input type="checkbox"/> |
81. Ez bada Espainian jaio, non jaio zen?
- | | |
|--|--------------------------|
| Mexikon, Ertamerikan, Hegoamerikan edo Kariben | <input type="checkbox"/> |
| Europa mendebaldeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> |
| Europa ekialdeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> |
| Asiako herrialde batean | <input type="checkbox"/> |
| Magrebeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> |
| Sahara hegoaldeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> |
| Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan | <input type="checkbox"/> |
| Ozeanian | <input type="checkbox"/> |
82. Zure semea edo alaba ez bada Espainian jaio, etorri zenean zenbat urte zituen? ...
83. Ama Espainian jaiotakoa da?
- | | |
|-----|--------------------------|
| Bai | <input type="checkbox"/> |
| Ez | <input type="checkbox"/> |

84. Ama ez bada Espainian jaio, non jaio zen?
- | | | |
|--|--------------------------|--|
| Mexikon, Ertamerikan, Hegoamerikan edo Kariben | <input type="checkbox"/> | |
| Europa mendebaldeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Europa ekialdeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Asiako herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Magrebeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Sahara hegoaldeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan | <input type="checkbox"/> | |
| Ozeanian | <input type="checkbox"/> | |
85. Aita Espainian jaiotakoa da?
- Bai
- Ez
86. Aita ez bada Espainian jaio, non jaio zen?
- | | | |
|--|--------------------------|--|
| Mexikon, Ertamerikan, Hegoamerikan edo Kariben | <input type="checkbox"/> | |
| Europa mendebaldeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Europa ekialdeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Asiako herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Magrebeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Sahara hegoaldeko herrialde batean | <input type="checkbox"/> | |
| Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan | <input type="checkbox"/> | |
| Ozeanian | <input type="checkbox"/> | |
87. Gaur egun aitak eta amak zer egiten dute?
- | | Aita | Ama |
|--|--------------------------|--------------------------|
| Lan egiten du enpresa batean edo administrazioan, lan egiten du autonomo modura edo badu enpresa bat | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ez du lan egiten langabezian dagoelako | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ez dut lan egiten erretiroa hartuta dagoelako | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ez du sekula etxetik kanpo ordaindutako lan batean jardun (etxeko lanez arduratzen da) | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
88. Zein da aitaren eta amaren okupazioa, gaur egun lanik egiten ez badute ere?
- | | Aita | Ama |
|---|--------------------------|--------------------------|
| Zuzendariak eta kudeatzaileak (Zuzendari exekutiboak, administrazio publikoko zuzendariak eta botere exekutiboko eta legegintza-kidegoetako kideak; zuzendari-administratzaileak eta merkataritza-zuzendariak; ekoizpeneko eta eragiketeko zuzendariak eta kudeatzaileak; hotel, jatetxe, saltoki eta bestelako zerbitzuetako kudeatzaileak) | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Profesional zientifiko eta intelektualak (Zientzietako eta ingeniariartzako profesionalak; osasun arloko profesionalak; irakaskuntzako profesionalak; administrazio publikoaren eta enpresen antolaketako espezialistak; informazioaren eta komunikazioaren teknologiako profesionalak; zuzenbideko, gizarte zientzietako eta kulturako profesionalak) | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

Erdi mailako teknikariak eta profesionalak (Zientzietako eta ingeniartzako erdi mailako profesionalak; osasun arloko erdi mailako profesionalak; finantza eta administrazio eragiketako erdi mailako profesionalak; zerbitzu juridiko, sozial, kultural eta antzekoetako erdi mailako profesionalak; informazioaren eta komunikazioen teknologiko teknikariak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Laguntza administratiboaren arloko langileak (Bulegariak; herritarrekin zuzeneko harremana duten langileak; kontabilitate arloko langileak eta materialen erregistroko arduradunak; laguntza administratiboaren arloko bestelako langileak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zerbitzuetako langileak eta saltoki eta merkatuetako saltzaileak (Zerbitzu pertsonaletako langileak; saltzaileak; zainketa pertsonaleko langileak; babes zerbitzuetako langileak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Nekazariak, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako, oihaneko eta arrantzako langile gaituak (Nekazariak eta merkaturako diren nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetako langile gaituak; oihaneko langile gaituak, arrantzaleak eta ehiztariak; nekazaritza eta abeltzaintzako langileak; arrantzaleak, ehiztariak eta iraupeneko biltzaileak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Arte mekanikoetako eta bestelako lanbideetako ofizialak, langileak eta artisauak (Eraikuntzako ofizialak eta langileak, elektrikariak izan ezik; metalurgiako, eraikuntza mekanikoko eta antzekoetako ofizialak eta langileak; arte grafikoetako artisauak eta langileak; elektrizitatean eta elektroteknologian espezializatutako langileak; elikagaien prozesamenduko eta jantzigintzako langileak eta ofizialak, ebanistak, bestelako artisauak eta antzekoak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Instalazio eta makinetako langileak eta mihizatzaileak (Instalazio finkoetako eta makinetako langileak; mihizatzaileak; ibilgailuen gidariak eta ekipo astun mugikorren langileak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Oinarritzako lanbideak (Garbitzaileak eta laguntzaileak; nekazaritza eta abeltzaintzako, arrantzako eta oihaneko peoiak; meatzaritza, eraikuntza, manufaktura-industria eta garraioko peoiak; elikagaien prestakuntzako languntzaileak; zerbitzuetako eta antzekoetako saltzaile-ibiltariak; hondakin-biltzaileak eta bestelako oinarritzako okupazioak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Militarren lanbideak (Indar armatuetako ofizialak; indar armatuetako subofizialak; indar armatuetako bestelako kideak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Zein da aitaren eta amaren ikasketa-maila?

	Aita	Ama
Lehen Hezkuntza bukatu gabe	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lehen Hezkuntza bukatuta	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH edo antzekoa)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntza (Batxilergoa edo erdi mailako Lanbide Heziketa)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Goi mailako Lanbide Heziketa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Diploma	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lizentzia, Arkitektura edo Ingeniaritza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Doktoregoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bestelako ikasketak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Hurrengo zerrendatik, markatu zer daukazu etxean.

- | | |
|--|--------------------------|
| 89. Ikasmahai bat | <input type="checkbox"/> |
| 90. Logela bat zure seme edo alabarendako | <input type="checkbox"/> |
| 91. Toki lasai bat ikas dezan | <input type="checkbox"/> |
| 92. Ordenagailu bat eskura zure semeak edo alabak etxeko lanak egin ditzan | <input type="checkbox"/> |
| 93. Hezkuntzako softwarea | <input type="checkbox"/> |
| 94. Interneteko lotura | <input type="checkbox"/> |
| 95. Literatura klasikoa | <input type="checkbox"/> |
| 96. Poesia liburuak | <input type="checkbox"/> |
| 97. Arte liburuak | <input type="checkbox"/> |
| 98. Laguntza liburuak etxeko lanetarako | <input type="checkbox"/> |
| 99. Hiztegi bat | <input type="checkbox"/> |
| 100. Erreferentziako liburu teknikoak | <input type="checkbox"/> |
| 101. Ontzi-garbigailua | <input type="checkbox"/> |
| 102. Telefono mugikorra | <input type="checkbox"/> |
| 103. Telebista | <input type="checkbox"/> |
| 104. Autoa | <input type="checkbox"/> |
| 105. Zenbat telefono mugikor daude etxean? | <input type="checkbox"/> |
| 106. Zenbat telebista daude etxean? | <input type="checkbox"/> |
| 107. Zenbat ordenagailu daude etxean? | <input type="checkbox"/> |
| 108. Zenbat auto daude etxean? | <input type="checkbox"/> |
| 109. Gutxi gorabehera, zenbat liburu daude zure etxean? | |
| 0-10 liburu | <input type="checkbox"/> |
| 11-25 liburu | <input type="checkbox"/> |
| 26-100 liburu | <input type="checkbox"/> |
| 101-200 liburu | <input type="checkbox"/> |
| 201-500 liburu | <input type="checkbox"/> |
| 500 liburu baino gehiago | <input type="checkbox"/> |

VII. Ikasketen errendimendua

- | | |
|---|--------------------------|
| 110. Zure semeak edo alabak batez beste zer nota atera zuen joan den ikasturtea bukatutakoan? | |
| Gutxiegia (0-4,9) | <input type="checkbox"/> |
| Nahiko (5-5,9) | <input type="checkbox"/> |
| Ongi (6-6,9) | <input type="checkbox"/> |
| Oso ongi (7-8,9) | <input type="checkbox"/> |
| Bikain (9-10) | <input type="checkbox"/> |

111. Aurreko ikasturtean, ekainean, zure semeak edo alabak gainditu gabe utzi zuen irakasgairan bat?

Bai

Ez

Zenbat?

112. Adierazi gurutze batez zure semeak edo alabak iazko ikasturtean batez beste zer nota atera zuen hurrengo taulan ageri diren irakasgaietan:

	Matematika	Gaztelania	Hizkuntza koofiziala*
Gutxiegia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Nahiko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ongi	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Oso ongi	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bikain	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

*Adierazi behar den hizkuntza koofizialaren izena, halakorik balego.

113. Zure semeak edo alabak errepikatu du inoiz ikasmilaren bat?

Bai

Ez

Baiezkoan adierazi behar d(ir)en aukera(k):

114. Lehen Hezkuntzako 2.a
115. Lehen Hezkuntzako 4.a
116. Lehen Hezkuntzako 6.a
117. DBHko 1.a
118. DBHko 2.a
119. DBHko 3.a
120. DBHko 4.a